

**ANTSOAIN**
**Udal ordenantza, Aurretiazko komunikazioaren edo erantzukizuneko aitortpenaren bidez hasitako jarduerak eta obrak ondoren kontrolatzeko prozedura arautzen duena. Behin betiko onespina**

Antsoaingo Udalak, 2015eko azaroaren 25ean egin osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen Aurretiazko komunikazioaren edo erantzukizuneko aitortpenaren bidez hasitako jarduerak eta obrak ondoren kontrolatzeko prozedura arautzen duen udal ordenantza. Iragarkia 2015eko 250. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eman zen argitara, abenduaren 17an.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluari jarraikiz, eta jendaurrean egoteko epea inork erreklamazio, kexa edo oharrik egin gabe iraganik, ordenantza hori behin betiko onetsi da eta, beraz, osorik ematen da argitara.

Antsoainen, 2016ko urtarrilaren 28an.–Alkatea, Ander Andoni Oroz Casimiro.

**ANTSOAINGO UDAL MUGAPEAN AURRETIAZKO KOMUNIKAZIOAREN EDO ERANTZUKIZUNEKO AITORTPENAREN BIDEZ HASITAKO JARDUERAK ETA OBRAK ONDORREN KONTROLATZEKO PROZEDURA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA**
**ZIOEN AZALPENA**

Zerbitzu jardueretarako sarbide libreari eta haietan aritzeari buruzko azaroaren 23ko 17/2009 Legeak Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2006ko abenduaren 12an barne merkatuko zerbitzuei buruz onetsitako 2006/123/EE Zuzentaraua ekarri du gura. Bestalde, 25/2009 Legeak zenbait lege xedapen aldatu ditu, halaber, Europako araua sartzearen ondorioz. Aldaketa horien artean, nabarmendu beharra da Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 84. artikulua idazketa berria, aurretiazko komunikazioa, erantzukizuneko aitortpena eta ondorengo kontrola ezarri baititu esku hartzeko baliabide arrunt gisa toki esparruan.

Aldi berean, hizpide dugun arloari dagozkion zenbait arau ere aldarrikatu dira, hala nola, Enpresa edo lanbide jarduerak abian jartzeko xedearekin administrazioa errazteko neurriei buruzko 15/2009 Foru Legea, Barne merkatuko zerbitzuei buruzko 2006/123/EE Zuzentzura egokitzeko xedez zenbait foru lege aldatzen dituen 6/2010 Foru Legea eta 7/2010 Foru Legea Toki Administrazioari buruzko Foru Legea aldatu duena 2006/123/EE Zuzentzura egokitzeko, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea aldatzen duen 5/2015 Foru Legea eta Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioari kontseilariaren abenduaren 23ko 448/2014 Foru Agindua (haren bidez, otsailaren 28ko 93/2006 Foru Dekretua garatzen duten arauak onetsi ziren, administrazioa bizkortzeko eta prozedurak errazteko arauak sartzeko asmoz; 93/2006 Foru Dekretuak Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legea garatzen duen Erregelamendua onetsi zuen).

Araudi horrek ezarritako ildoari jarraituz, 19/2012 Legegintzako Errege Dekretuak eta Merkataritza eta zenbait zerbitzu liberalizatzeko premiazko neurriei buruzko abenduaren 26ko 12/2012 Legea eman ziren, helburua izanik, zioen azalpenean adierazten zen bezala, aurrera egitea ingurumenaren babesean, segurtasunean edo osasun publikoan oinarritzen ziren aurretiazko udal lizentziaren edo baimenaren kasu guztiak kenduz, merkataritzako establezimenduei lotuta daudenak, bai eta eranskinean jasotzen diren 300 metro koadrora bitarteko beste batzuei ere. Irizten da, beharra eta proportzionaltasuna juzgatu ondoren, aurretiazko kontrolak beharrezkoak direla, zeren jarduera horietan, beren izaeragatik, behar dituzten instalazioengatik eta establezimenduaren neurriengatik, ez baitago baimenaren teknikaren bitartez kontrolatzeko moduko eraginik; izan ere, horren ordez, ondorengo kontrol bat ezartzen da, erantzukizuneko aitortpen batean oinarritua. Malgutasuna, halaber, martxoaren 4ko 2/2011 Legearen erreforma aplikatzeko esparruaz haratago zabaltzen da, eta aurretiazko komunikazioari edo erantzukizuneko aitortpenari lotutako obra guztiak ere ukitzen ditu. Hori dela eta, obrak eta instalazioak eraikitzeari eta merkataritza eta zerbitzuak egiteari ekiten ahal zaio, erantzukizuneko aitortpen bat edo aurretiazko komunikazio bat aurkeztuz, kasua

zein den, zeinetan enpresak adieraziko baitu indarreko araudiak eskatzen dituen baldintzak betetzen dituela eta eskatzen diren agiriak dituela, eta kasuan kasuko zerga ordainduta duela dioen frogagiria baduela, hura behar denean.

12/2012 Legeak, 5/2012 Foru Legeak eta 448/2014 Foru Aginduak indarra hartu zuten geroztik, Antsoaingo Udalak erantzukizuneko aitortpenak tramitatu ditu aurretiazko udal baimena behar ez duten jarduera eta obretan, testu arauemaile horren eranskinean egoteagatik, baina, orain arte, xedapen arauemailek ez zegoen.

Erregelamenduzko testu honen helburua da jarduera eta obra horiek ondoren kontrolatzeko prozedura administratiboa zehaztea, Udalaren jardunak estaldura juridikoa izan dezan, eta segurtasun juridikoa eman dakien erantzukizuneko aitortpenaren edo aurretiazko komunikazioaren bidez obrak edo jarduera hasi dituzten establezimenduen titularrei.

Azkenik, aipatu beharra da Estatuko eta Nafarroako araudiak ezarriko dituela aurretiazko baimen administratiboa erantzukizuneko aitortpenarekin ordeztuko araubide horri lotutako jarduerak, 12/2012 Legearen azken xedapenetan 9.ak eta 10.ak ahalmena ematen baitiete gobernari zein autonomia erkidegoei erantzukizuneko aitortpena, eta, hortaz, ordenantza honek ezartzen duen ondorengo kontrolaren araubidea, aplikagarri izanen lituzketen azaleraren atalasea nahiz jardueren eta zerbitzuen katalogoa handitzeko.

## **I. TITULUA**

### **XEDAPEN OROKORRAK**

1. artikulua. Helburua.

1.–Erregelamenduzko xedapen honek helburu du Antsoaingo Udalak egin beharreko ondorengo kontrolaren prozedura erregulatzea, aurretiazko komunikazioaren edo erantzukizuneko aitortpenaren prozeduraren bidez hasitako jarduerak lege aurreikusitako bezala ezartzeari dagokionez.

Ondorengo kontrolaren araubide hori, halaber, aurretiazko komunikazioari edo erantzukizuneko aitortpenari lotutako obrei aplikatuko zaie.

2.–Kontrolaren prozedura hori mugatzen da erantzukizuneko aitortpenaren edo aurretiazko komunikazioaren bidez hasitako jardueretara, eta ez ditu baztertzen edo ukitzen kontrolaren gainerako prozedurak, Antsoaingo Udalak bere eskumenen esparruan horien funtzionamenduari dagokionez egiten dituenak.

2. artikulua. Gaitzen duten tituluak.

1.–Udalak esku hartzen ahal du, jarduera eta obra horiek funtzionamenduan jartzeari dagokionez, baliabide hauen bitartez:

a) Aurretiazko komunikazioaren menpe jartzea.

b) Erantzukizuneko aitortpenaren menpe jartzea.

2.–Udalak ondorengo kontrolaren ahalmenak baliatuko ditu interesdunak erantzukizuneko aitortpenaren edo aurretiazko komunikazioaren bidez jakinarazitako datuak egiaztatzeko, Merkataritza eta zenbait zerbitzu liberalizatze premiazko neurri buruzko abenduaren 26ko 12/2012 Legearen 5. artikuluan, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 189. ter artikuluan eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Foru Legearen 71. bis artikuluan xedatutakoaren babesean.

3. artikulua. Aurretiazko komunikazioa.

1.–Aurretiazko komunikazioan, interesdunak Udalarari jakinarazten dio jada funtzionamenduan dabilzan jardueren titulartasuna aldatu dela.

2.–Aurretiazko komunikazioaren agiria ereduari jarraituz aurkezteak bide ematen dio interesdunari bere jardueran hasteko.

4. artikulua. Erantzukizuneko aitortpena.

1.–Erantzukizuneko aitortpenean, ageriko jarduera bat martxan jarri gogo duen interesdunak, bere erantzukizunpean eta ereduaren arabera agiri baten bidez, adierazten du indarreko araudian kasuan kasuko enpresa edo lanbide jarduera hasteko ezarritako baldintzak betetzen dituela, hori frogatzeko dokumentazioa daukala eta konpromisoa hartzen duela hori betetzen jarraitzeko jarduerak irauten duen bitartean. Gainera, jarduera egitearren lokala egokitzearekin lotuta dauden obrak egiteko asmoa ager dezake, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 189. ter artikuluan

xedatutakoaren arabera. Azkenik, erantzukizuneko aitopenen helburu bakarra izan daiteke aipatu obrak jada funtzionamenduan dabiltzan jardueretan egiteko asmoa adieraztea, ereduaren arabeko Udalaren eskabidean jaso bezala.

Erantzukizuneko aitopena aurkezteak bide ematen du jarduera hasteko edo egin gogo diren obrak egiteko.

2.–Erantzukizuneko aitopenen araubidea jarduerak ezartzeko legez aurreikusitako kasuetan aplikatuko da, baita aurretiazko komunikazioari edo erantzukizuneko aitopeneri lotutako obrak egiteko ere.

## II. TITULUA

### **AURRETIAZKO KOMUNIKAZIOAREN EDO ERANTZUKIZUNEKO AITORPENAREN BIDEZ JARDUERAK FUNTZIONAMENDUAN JARTZEKO PROZEDURA**

5. artikulua. Eskabideen aurkezpena.

1.–Antsoingo Udalaren Erregistro Orokorrean kasu bakoitzerako araututako eskabide bat aurkeztuz eginen da aurretiazko komunikazioa edo erantzukizuneko aitopena. Erantzukizuneko aitopenerekin batera, kasuan kasuko ziurtagiri teknikoak aurkeztuko da, Udalaren ereduaren arabera.

2.–Halaber, kasuan kasuko udal tasa ordaindu izanaren frogagiria aurkeztuko da, eta jarduera ekonomikoen zergaren kasuan kasuko epigrafean edo epigrafeetan alta emanda egotearena ere bai.

3.–Jarduera egiten den tokian, honako hauek egonen dira Udalaren eta gainerako administrazio publikoen eskura, beren eskumenak baliatzeko:

–Aurretiazko komunikazioaren eta/edo erantzukizuneko aitopenen kopia bat, behar bezala eginbidetua Udalaren Erregistro Orokorrearen sarrerarekin.

–Aurkeztutako ziurtagiri teknikoaren eta dokumentazio osagarriaren kopia bat, kasua bada.

–Kasuan kasuko dokumentazio gehigarria, Udalaren erantzukizuneko aitopenen eta ziurtagiri teknikoaren eruedetan jaso bezala.

4.–Komunikazioa edo aitopena gainbegiratu da, eta, dokumentazioa zuzena edo behar adinakoa ez bada, errekerimendua eginen da 10 eguneko epean akatsa zuzentzeko edo beharrezko agiriak aurkezteko, eta ohartaraziko da ezen, hala egin ezean, organo eskudunak ebazpena emanen duela, non hori jasoko baita, erantzukizuneko aitopenera eraginik ez duela adieraziko, eta, kasua bada, jarduera uzteko aginduko.

Aurretiazko komunikazioaren edo erantzukizuneko aitopenen eragina etenik geldituko da ordenantza honen 7. artikuluan zehaztu bezala eman ez diren datuak eman arte.

6. artikulua. Egiatzen aldia.

1.–Erantzukizuneko aitopenen egintzen bidez funtzionamenduan jartzen den jarduera oro Udalaren zerbitzuek ondoren kontrolatzeko izanen da, irekitzeko edo obrak egiteko baldintzei dagokienez, halakorik balego. Bestalde, transmititzen diren eta Udalarari jakinarazten zaizkion jarduerak ere ondoren kontrolatzekoak dira.

2.–Aurretiazko komunikazioaren araubidean, kontrolatuko da komunikazioko datuek eta Udalean daudenen bat egiten dutela lokalaren kokapenera, egiten den jarduerari eta aurreko titularrari dagokienez.

3.–Erantzukizuneko aitopenen araubidean, kontrola eginen da egiatatzeko jarduerak tramite horri heltzen ahal dion eta ziurtagiri teknikoak, hirigintzako erabilerak eta lokalaren oinarriko baldintzek betetzen duten indarreko araudia (gutxieneko azalera, solairuak, eta abar).

4.–Ondorengo kontrolaren prozeduran, Udalak zilegi du bidezko zat jotzen duen dokumentazio teknikoak eskatzea kasuan kasuko egiatzenak egiteko.

5.–Lokala bertatik bertara ikuskatuz osa daiteke erantzukizuneko aitopena aurkeztu ondorengo kontrol administratiboa. Halakoetan, ikuskatu baino lehen, errekerimendua eginen zaio jardueraren titularrari indarreko araudian ezarritako baldintzak betetzen dituela frogatzeko dokumentazio teknikoak aurkez dezan, egiatzena egiteko.

Akta jasoko da ikuskapen jarduketaz, eta hura agiri publikotzat joko da eta zehapen prozedurei dagokien proba balioa izanen du, aparte utzirik kasuan kasuko eskubide edo interesen defentsan aurkez daitezkeen probak.

6.–5.3 artikuluan zehaztutako dokumentazioa epe barrenean aurkezteko baldintza ez betetzeak ekarriko du jarduera uztea, hirigintzaren arloan eskudun den organoak emanen duen aginduaren bitartez.

7. artikulua. Prozeduraren amaiera.

1.–Udalaren zerbitzuek kontrola egin ondoan, egiaztatzen denean lokalak baldintza egokiak betetzen dituela adierazi jarduera garatzeko, amaitutzat hartuko da kontrol prozedura, hirigintzaren arloan eskudun den organoaren ebazpenaren bitartez, eta horren berri emanen zaio interesdunari beharrezko jakinarazpenaren bidez. Jakinarazpen hori lokalean eduki beharko da, Udalaren eta gainerako administrazio publikoen eskura, beren eskumenak balia ditzaten.

2.–Antzematen bada 12/2012 Legearen edo 448/2014 Foru Aginduaren aplikazio eremutik kanpoko jarduera bat hasi dela edo aurretiatzko komunikazioaren edo erantzukizuneko aitortenaren prozedurak babesten ez dituen obrak egin direla, eskatuko da 10 eguneko epean alegazioak egiteko edo bidezkotzat jotzen diren agiriak aurkezteko. Horiek ikusita, ebazpena emanen da erantzukizuneko aitortenaren edo aurretiatzko komunikazioaren eragina eteteko, epe bat zabalduko da kasuan kasuko lizentzia eskatzeko, eta jarduera uzteko aginduko da. Jarduera ezin bada legezatu, eskatuko da establezimendua ixteko. Orobat, konpondu ezinezko akats teknikoak atzemanenez gero, establezimendua ixteko aginduko da. Horretarako, 10 eguneko epe bat emanen da, bere eskubidearen alde komeni zaiena alega dezaten.

3.–Egiaztapenean konpontzeko moduko akatsak atzemanenez gero, eskatuko da haiek zuzen daitezela bidezkotzat jotzen den epean. Akatsak funtsezkoak badira, balorazio teknikoa eta juridikoa egin ondoren, erabakiko da jarduera kautelaz etetea, eta epe bat emanen horiek zuzentzeko. Epe horretan norberaren eskubidearen alde komeni diren alegazioak egin daitezke, eta horiek baietsi edo ezetsiko dira prozedurari amaiera ematen dion ebazpenean. Jarduera eteteko erabakiaren kontra, tramiteko egintza kualifikatua den aldetik, errekurtsioa aurkezten ahalko da administrazio bidean nahiz bide judizialean. Atzemandako akatsak zuzendu ondoan, irizten denean adierazi jarduera garatzeko baldintza egokiak betetzen dituela lokalak, artikuluan honen 1. puntuan ezarritakoari jarraituko zaio. Bestela, horretarako ezarritako epea iragandakoan, adieraziko da erantzukizuneko aitortenak edo aurretiatzko komunikazioak ez duela eraginik, eta establezimendua behin betiko ixteko aginduko.

4.–Aurretiatzko komunikazioa aurkezten bada eskatutako datuak bildu gabe, konpondu dadila eskatuko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Foru Legearen 71. artikuluan xedatutakoarekin bat. Aurretiatzko komunikazioaren eragina etenik geldituko da eman gabeko datuak ematen diren arte. Konpontzeko epea iragaten bada halakorik egin gabe, hirigintza arloan eskudun den organoak ebazpena emanen du hori jasota geldi dadin eta adieraziko da aurretiatzko komunikazioak ez duela eraginik.

5.–Erantzukizuneko aitortenari edo aurretiatzko komunikazioari eransten zaion edozein datu, adierazpen edo agiri, funtsean, ez-zuzenak edo faltsuak badira, zerbait falta bada, edo erantzukizuneko aitortena edo aurretiatzko komunikazioa ez bazaio aurkezten eskumena duen administrazioari, ez da segitzen ahalko ukitutako eskubide edo jarduerarekin, gertaera horien berri jakiten den unetik beretik, deusetan galarazi gabe legokiokeen erantzukizun penal, zibil eta administratiboa. Halaber, horren berri ematen duen ebazpenak ezar dezake eskubidea erabili edo jardueran hasi aitzineko egoera juridikoa berrezarri beharra, baita erabaki ere aldi jakin batean ezin duela abiarazi bertze prozedurarik xede berarekin; hori guztia aplikatu beharreko arau sektorialetan ezarritakoarekin bat etorritik.

6.–Jardueraren badaezpadako edo behin betiko etenaren gaineko ebazpenaren aitzineko entzute epetzat hartzen dira neurri zuzentzaileak hartzeko epea eta agirien egiaztapen aldiaren ondoriozko akatsak edo baldintzak zuzentzekoa.

7.–Artikulu honetako aurreko ataletako neurriek ez dute ukatzen kasuan kasuko zehapen espedientea tramitatzea, hala behar bada.

## **XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA**

Indarrrik gabe gelditu dira ordenantza honetan ezarritakoari kontra egiten dioten maila bereko edo beheragoko udal xedapen guztiak.

Iragarkiaren kodea: L1601147